

San Joan Astobitza,  
Sanpedropeko,  
Luiaondo, Arakaldo,  
Areta eta Ugarteko  
jaiei buruzko  
gehigarri berezia



**Aiaraldea**

**JAIETAN**

# San Joan Astobitzako Jaiak

## Ohiko formatura itzuliko dira San Joan Astobitzako jaiak

**Testua** Txabi Alvarado Bañares

Azken bi urteetan formatu txikia mantendu dute San Joan Astobitzako jaietan, egun bakarreko festa antolatuta. Aurten, aldiz, betiko formatura itzuliko da Laudio-ko Larrazabal auzoko jaia, bere ikur nagusiekin: bola txapelketa, krosa eta, nola ez, udari ongi etorria egiteko sua. Musika eskaintza anitza ere egongo da. Larunbatean hiru talde igoko dira zelai-jarritako oholtzara: Zinkha,

Raimundo el Canastero eta Beranduegi erromeria. Igandean, aldiz, Gualdeko Hasperena erromeria arduratuko da iluntzea girotzeaz.

### Kirol probak

Herri krosaren XV. edizioa izango da aurtengoa, eta izen emateak 3 euro balioko du aurretik eta 5 euro probaren egunean. Inskripzioa egiteko bizuma egin behar da ondorengo telefono hauetako batera: 637 968 841 edo 656 737 386 ("SJK-Parte hartzailearen izen

abizenak" jarri behar da kontzeptu moduan).

Igande goizean, aldiz, mendi martxa egingo da Pagolarrera, bertan eraiki nahi duten parke eolikoaren aurka protestatzeko.

Bukatzeko, arratsaldean ekimen berri bat egingo dute: Herri Krossfit desafioa. Herri kirolak eta crossfita uztartuko dituzte hiru probatan. Hiru kide izan behar du talde bakoitzak eta horietako bat gutxienez izan behar du emakumea.



Igandean piztuko dute jaien ikur nagusia den sua. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

**ONGI ETORRI UDA**

Ongi etorri auzo eta herri jaiak

Zeu zara  
**Laudio**  
LAUDIO UDALA

## EGITARAUA

**06.21**  
Ostirala

18:30 // Bolatoki txapelketa

**06.22**  
Larunbata

09:00 // Bolatoki txapelketa, 20:00ak arte

20:00 // XV. Krosa

22:30 // Kontzertuak: Zinkha, Raimundo el canastero eta Beranduegi erromeria

**06.23**  
Igandea

9:00 // Pagolarrera mendi igoera Aiaraldeko Mendiak Bizirik taldearekin

12:00 // Euskal dantzak Itxarkundia taldearekin

17:00 // Haurrentzako jolasak Kirikiñoren eskutik

18:00 // Buruhandiak Galtzagorri taldearen eskutik

19:00 // Herri Krossfit desafioa, Gorobel Kirol Gunearen eskutik

22:00 // Suaren piztea eta dantza emanaldia, Akelarre dantza taldearen eskutik

**Jarraian** Gualdeko Hasperena erromeria

**06.24**  
Astelehena

12:00 // Meza

**06.29**  
Larunbata

13:00 // Meza



Landaluze 17, behe LAUDIO  
94 672 55 69  
Larrialdia: 608 87 62 70  
Etxez etxeko zerbitzua

# Sanpedropeko jaiak

## “Aurten bost kuadrilla berri sartu dira Jai Batzordean”

Bi eguneko egitaraua prestatu dute Laudioko Suziri Jai Batzordeko kideek aurtengo Sanpedropekoetarako. Eurekin hitz egin dugu egitarauari eta esku artean dituzten beste erronkei buruz.



Tortilla eta sukalki txapelketa izango da jaiaren ekintza esanguratsuenetakoa bat. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

**Testua** Aitor Aspuru Saez

### Zer berrikuntza nabarmen- duko zenituzkete aurten San- pedropeko jaietatik?

Berrikuntza izan beharrean, atzera begiratzea izan da azken urteotako joera. Iaz ostiraletan egiten ziren musika talde lokalen kontzertuak berreskuratu genituen. Aurten, horiez gain, umeentzat ere espazioa gordetzea pentsatu dugu, haientzako puzgarriak ekarrita.

**Urteak daramatzazue jai kuadrillak sanpedropekoak antolatzen, eta azken urteetan jaiak gorakada izan due-**

### la dirudi. Nola bizi izan duzue zuek?

Ilusio handiarekin. Oso gobetegarria da guk egiten dugun lanak bere fruituak ematen dituela ikustea. Era berean, jaiak handiago egiteak gure partetik ere ardura handiagoa eskatzen du, baina prest ikusten dugu gure burua erronka horri aurre egiteko. Azken urteotan egindako lanari dagokionez, orokorrean iritzi positiboa daukagu taldean. Beti egongo da hobetu daitekeen zeozer, baina Jai Batzordeak azken urteotan izan duen hazkuntza gauzak ondo egiten ari garenaren seinaltzat hartu dugu.

### Zerk egiten ditu Sanpedropeko jaiak berezi data berdinetan egiten diren beste jai batzuen aldean?

Herrian dagoen jai herrikoie-kiko ilusioa akaso? Sanpedropekoak bereziak izan dira betidanik Laudion. Gainera, askorentzat udaren hasiera markatzen duen jaia da San Joan Astobitzako jaiekin batera.

### Nola dago Suziri Jai Batzordea osasun aldetik? Kuadrilla berriak sartu dira aurten? Zeintzuk?

Bai! Arestian aipatu bezala, indartsu dator aurten ere Jai Batzordea. Bost inkorpora-

zio berri izan ditugu: Sagaztiak kuadrilla mitikoa ofizialdu egin da, Txindoki, Basapiztiak, Gautxoriak eta, azkenik, Aztarnak kuadrilla, duela aste pare bat eskas sartutakoa.

### Sanpedropeko jaiak amaituta, abuztuko San Rokeetara begira jarriko zarete. Zer duzue prestatuta kuadrillen partetik zita horretarako?

Ba sorpresa baten bat bai! Kuadrilla berriak ideia berriekin datoz Jai Batzordera normalean, baina sekretua gordeko dugu, kar kar kar. San Rokeetako egitaraua irten arte itxaron beharko duzue! Pista bezala, ga-

solina eta kirola presente egongo dira aurtengo jaietan ;)

### Zer lan geratzen zaizue egiteko abuztuko jaietara begira?

Ba gutxi asko egia esan. Plan-gintza osoa dukagu itxita orokorrean. Orain, Udalak dirulaguntza eskatzeko epea ea noiz irekiko duen esperoan gaude. Horren ondoren, kuadrilla bakoitza hasiko da bere ekintzak antolatze-ko prestakuntzekin.

### Beste zerbait gaineratu nahiko bazenukete...

Noski! Gora Laudioko jai herrikoiak eta gora Suziri Jai Batzordea!

## EGITARAUA

### 06.28

#### Ostirala

17:30 // Puzgarriak

19:00 // Ximena

20:15 // Aiala Dot eta Oih

20:30 // Txaranga kalejira

21:30 // Katilu

23:00 // Cuatro Bancos

### 06.29

#### Larunbata

9:00 // Sukalki eta tortilla txapelketa

12:00 // Tortillen aurkezpena

12:00 // Buruhandiak

12:30 // Tortillen sari banaketa

13:45 // Sukalkien aurkezpena

14:15 // Sukalkien sari banaketa

14:30 // Bazkari herrikoia

16:00 // Karaokea

18:30 // Kalejira

22:00 // Akerbeltz erromeria

01:00 // Galtzontzilo eta kulero lasterketa

01:30 // DJ Rosamari

# Babestutako edukia



Haur/familia,  
gazte eta  
helduentzat

AIARALDEA EKINTZEN  
**FAK  
TO-  
RIA**

# Atelietzen faktoria

2024-2025 ikasturteko ikastaro eskaintza

## Haur eta familientzat

Astelehenetan 17:15-18:15

### IPIUINEN LABORATEGIA

Ipuinak jolasen bidez lantzeko,  
euskara landuz

- Irailaren 30etik ekainaren 16ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 15€/ Ez-bazkideek 20€.
- 2016-2022 bitartean jaiotako haurrentzat.

Asteartean 17:15-18:15

### ESKULANEN LABORATEGIA FAMILIAN

Familia harremanak sendotzeko

- Urriaren 1etik ekainaren 17ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 25€/ Ez-bazkideek 30€.
- 2017-2021 bitartean jaiotako haurrentzat.

Asteazkenetan

### NATUR ATELIERRA

Lurra, elikagaiak, sendabelarrak

- 17:00-18:00 2017-2021 bitartean jaiotakoak.
- 18:00-19:00 2012-2016 bitartean jaiotakoak.
- Urriaren 2tik Ekainaren 18ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 25€/ Ez-bazkideek 30€.

Astelehenetan 18:15-19:15

### BIDEOPODCAST ETA IRRATIGINTZA

Euskarazko ahazkotasuna lantzeko

- Irailaren 30etik ekainaren 16ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 15€/ Ez-bazkideek 20€.
- 2010-2015 bitartean jaiotako haurrentzat.

Asteartean 18:00-19:00

### ANTZERKI SORMEN LABORATEGIA

Antzerkiaren munduan jolasteko

- Urriaren 1etik ekainaren 17ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 25€/ Ez-bazkideek 30€.
- 2013-2018 bitartean jaiotako haurrentzat.

Ostegunetan

### DANTZA SORTZAILEA

Mugimendua, gorputza, gozamena

- 17:15-18:15 2017-2021 bitartean jaiotakoak.
- 18:15-19:15 2012-2016 bitartean jaiotakoak.
- Urriaren 3tik Ekainaren 19ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 25€/ Ez-bazkideek 30€.

## Gazte eta helduentzat

Astelehenetan 18:30-20:30

### MARGO ESKOLA

Sormena indartzeko eta  
ahalduntzeko, margoaren bidez

- Irailaren 30etik ekainaren 16ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 35€/ Ez-bazkideek 40€.
- Dinamizatzailea: Gurene Grande.

Asteartean 19:00-21:00

### ANTZERKI ESKOLA

Antzeztu, esperimendu,  
sortu eta gozatu

- Urriaren 1etik ekainaren 17ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 35€/ Ez-bazkideek 40€.
- Dinamizatzailea: Ainhoa Artetxe.

Asteazkenetan 19:00-21:00

### SUKALDARITZA AGROEKOLOGIKOA

Garaiko eta tokiko produktuak

- Urriaren 2tik Ekainaren 18ra.
- Bazkideek 35€/hilabetea | Ez-bazkideek 40€/hilabetea.
- Dinamizatzailea: Maitane Cabeza.

Astelehenetan 19:15-20:45

### YOGA ESKOLA

Gorputza eta arima  
osagarritzeko eskola euskaraz

- Urriaren 7tik Ekainaren 16ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 25€/ Ez-bazkideek 30€.
- Dinamizatzailea: Beatriz Calvo.

### EUSKARA ESKOLA ARINAK

Euskara erraz eta arin ikasteko

- Eguna eta ordutegia:  
Interes taldeen arabera adostuko dira.
- Iraupena: astero ordu eta erdi.
- Urriaren 1etik ekainaren 20ra. Doakoa.



Ezinbestekoa izango da alde aurretik izena  
ematea [faktoria.eus](http://faktoria.eus) webgunean.

# Hiru egunez luzatuko dira Arakaldoko jaiak eta egitarauak ohiko eskema mantenduko du

Uztailaren 12, 13, 14 eta 18an izango dira Arakaldoko jaiak aurten, baina lehen bi egunetan pilatuko dira jarduera gehienak. Larunbatean urteroko eskema errepikatuko dute: arratsaldean tortilla txapelketa izango da jarduera nagusia, eta haurrentzako

parkea zein bola jokoa ere egongo dira bien bitartean. Iluntzean adin guztientzako kontzertuak egongo dira udaletxearen alboan muntatuko den oholtzan. Igandean, aldiz, herri bazkaria izango da jende gehien bilduko duen ekitaldia.



Tortilla txapelketa izango da larunbat arratsaldeko ekintza nagusietako bat. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

## Testua Txabi Alvarado Bañares

Arakaldoko Jai Batzordeko kideek badute prest aurtengo jaien egitaraua. Aurreratu dutenez, uztailaren 12, 13 eta 14an pilatuko dira ekintza gehienak, eta azken urteetan nagusitu den eskema jarraitu dute. Ostiraleko txupinazoaren eta kontzertuen ostean, larunbat arratsaldean tortilla txapelketa izango da ekintza esanguratsuenetako

bat. Urtero bezala, dozenaka lagunen parte hartzea espero dute antolatzaileek, eta haurrentzako parkea zein bola jaurtiketa ere egingo dituzte aldi berean, herria are gehiago girotzeko.

Gauean, aldiz, kontzertuak egongo dira, adin guztieko pertsonentzat pentsatutakoak. Alde batetik, umeeak animatzen bereziki trebea den Xaibor arituko da dantzan, eta The Pushermen & Patricia Recklesekin eman-

go diote rock ukitua jaiari. Igandean, aldiz, kirol erakustaldiak egongo dira goizean, Betijai fanfarreak giroturik. Ondoren, herri bazkaria egingo dute, eta modu horretan amaituko da jaien zati nagusia.

Horrez gain, jaien antolatzaileek aipatu dute igande honetan (ekainak 23) sua piztuko dutela udako solstizioa ospatzeko, eta bezperan geratuko dira dena prestatzeko.

## EGITARAUA

### 07.12 Ostirala

19:00 // Txupinazoa, buruhandiak, txorizo eta odolostekak

21:00 // Gautaegun erromeria eta DJ AZID

### 07.13 Larunbata

10:30 // Txistu kalejira  
12:00 // Etxebarria aita-seme trikitalariak  
12:30 // Buruhandiak  
13:00 // Txapa tailerra eta apar festa  
17:30 // Haurren parkea  
17:30 // Tortilla txapelketa  
18:00-20:00 // Bola txapelketa  
18:00 // Dantzak

19:30 // Tortillen entrega  
20:00 // Txokolate-jana  
21:00 // Xaibor eta The Pushermen & Patricia Reckles

### 07.14 Igandea

10:30 // Txistu kalejira  
10:30 // Haurren pilota erakustaldiak  
11:00-13:30 // Bola jokoa  
12:00 // Betijai fanfarrea  
12:00 // Herri kirolak  
12:00 // Igel txapelketa  
14:30 // Herri bazkaria

### 07.18 Osteguna

12:00 // Meza eta, jarraian, pintxoak eta trikitia

**EUROMASTER**  
TALLERES  
PICAZA

**ONDO PASA  
JAIETAN!**

MEKANIKA

ESEKIDURA

BALAZTAK  
Pastillak eta diskoak

OLIOA

AIRE GIROTUA  
betetzea

DIAGNOSIA  
BKT Diagnostika

PNEUMATIKOAK  
Marka guztiak

GAS GARBIKETA I.A.T.ARI BEGIRAKO BERMEAREKIN

La Isla auzoa z/g, Arakaldo 94 672 74 81 - 656 701 399



**Arakaldo**  
GRÁFICAS

*Zure inprimategia izan nahi dugun*

Paraje Usilarra 1.  
ARAKALDO

94 672 13 11  
graficasarakaldo.eu

# Luiaondoko Jaiak

## Moonshine Wagon, Beranduegi, Akerbeltz, Puro Relajo, Joselu Anaiak eta hainbat Djk Luiaondoko Jaietan

Beste urte batez, egitarau oparoa prestatu du Luiaondoko Jai Batzordeak Madalenak ospatzeko. Uztailaren 19tik 22ra luzatuko da festa, ostiraletik astelehenera hain zuzen. Ohiko ekitaldiak ez dira faltako, baina musikak hartuko du protagonismo handia,

azken urteetako ildo jarraituz. Moonshine Wagon, Blessive Dj, Etxebarria aita- seme trikitilariak, Akerbeltz, DJ Varro, Puro Relajo, Sospechosodespam eta Joselu Anaiak taldeak arduratuko dira ospakizunari soinu banda jartzeaz.



lazko txupinazoko irudi bat. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

**Testua** Txabi Alvarado Bañares

Iragan asteburuan jendez bete zen Luiaondoko Gizar-te Etxeko ingurua, Euskadiko Bola Txapelketa egin baitzen. Orain, txapelketa horren ajea pasata, uztailaren 19ra begira jarri dira luiaondoarrak, egun horretan hasiko baitira herriko Madalena jaiak, uztailaren 22ra arte luzatzeko.

Bolek presentzia nabarmena izango dute ospakizun horretan ere. Helduentzako jaurtike-

ta egongo da larunbatean, eta haurrentzakoak, aldiz, astelehenean. Ekintza tradizionalak pisua izango dute egitarauan.

Baina, azken urteetako ildori jarraiki, jende gazteak presentzia nabarmena izatea espero dute antolatzaileek, gau partean batez ere. Izan ere, musika eskaintza oparoa prestatu dute, erromeria zein DJez osatutakoa batez ere, Luiaondoko jaiak adin-mugarik ez dutenaren seinale.

## EGITARAUA

### 07.19 Ostirala

18:00 // Kalejira  
Sospechosodespam-ekin

20:00 // Txupinazoa  
Kultur etxean

20:30 // Buruhandiak

21:00 // Moonshine  
Wagonen kontzertua

23:00 // Beranduegi  
erromeria

02:30 // Blessive DJ

### 07.20 Larunbata

11:00-13:00 // "La  
Magdalena" bola jaurtiketa

16:00 // Frontenis  
txapelketa

17:00-18:00 // "La  
Magdalena" bola jaurtiketa

19:30 // Bingoa elizako  
zelaian

21:00 // Etxebarria  
aita-seme trikitilarien  
emanaldia elizako zelaian

21:30 // Odoloste jan  
herrikoia elizako zelaietan

23:00 // Kontzertua  
Akerbeltz erromeriarekin

02:30 // DJ Varro

### 07.21 Igandea

16:00 // Mus txapelketa  
elizako zelaian

19:00 // Bingoa elizako  
zelaian

19:30 // Puro Relajo

21:00 //  
Sospechosodespam

### 07.22 Astelehena

12:00 // Maria  
Magdalenaren omenezko  
meza

12:30 // Bermuta

17:00-18:00 //  
Haurrentzako bola  
txapelketa

16:30-19:30 //  
Haurrentzako parkea

19:30 // Joselu Anaiarekin  
dantzaldia

**KOPAS** IDEIAK  
GAUZATZEN  
DITUGU

Alda. Urkijo, 88 -2º  
48013 Bilbao  
kopas@kopas.es  
Tfno. 94.442.22.24



Aialako Industrialdea, 8  
01479 Murga - Aiara  
fabrica@kopas.es  
Tfno. 945.39.94.05

[www.kopas.es](http://www.kopas.es)



Gora  
Luiaondoko  
jaiak!

**Eguneko  
MENUA**

12,50€

Astelehenetik  
larunbatera

Restergo 6, LUIAONDO  
945 39 35 64



# Laburragoak izango dira Aretako Jaiak, baina baita biziagoak ere

Uztailaren 25etik 28ra luzatuko da festa. Antolatzaileek bi egun gutxiagotan pilatu behar izan dituzte ekitaldi guztiak. Musika eskaintza egongo da hiru egunetan: Aramuk, Zinkhak,

Ariak, Gautaegun eta Bidean erromeriek, DJ Masak, Bi Hotsak abesbatzak, Birenek eta Igor Arzuagak eskainiko dituzte kontzertuak.

## Testua Txabi Alvarado Bañares

Uztailaren 25etik 28ra luzatuko dira Aretako jaiak, ostegunetik igandera. Lau eguneko festa izango da orotara, iaz baino bi egun gutxiago. Gauzak hala, antolatzaileek ahalgin berezia egin behar izan dute jarduera guztiak programan sartzeko.

Momentuz ez dute egitarau osoa publiko egin, baina jarduera nagusiak laburbildu dizkio Aiaraldea Komunikabideari. Zehaztu dutenez, “betiko eskema” izango dute jaiak. Eskupilota partidu profesionalak, adibidez, mantendu egin dituzte. “Hasieran pentsatzen genuen iaz baino ez zirela egingo, baina mantendu ahal izan ditugu”, nabarmendu dute. Beste hainbat gauza ere errepikatuko dituzte: gastronomia topaketak, herri kriolak, artzain txakur txapelketa...

Baina berrikuntza batzuk ere txertatuko dituzte. Azoka, adibidez, iaz berreskuratu zuten, eta “indartsuagoa” egin nahi dute aurrean, arratsaldean ere mantenduz. Modu horretan trail lasterketarekin kointzidituko du merkatuak, eta aukera ona irudituz zaie bi jarduerak elkar elikatu dezaten.

Kirol proba horri dagokionez ere, ohiko planteamendua mantenduko dute: 18:00etan abiatuko dira parte hartzaileak, eta 13 kilometro egin beharko dituzte

inguruko aldapa eta mendietan barrena. Inskripzioak 12 euro balioko ditu ekainaren 25era arte. Egun horretan hiru euro garestituko da prezioa, eta lasterketaren egunean izena emateak, aldiz, 20 euro balioko ditu. Izen emate bakoitzetik 2 euro bideratuko dituzte Aretako Herri Kontseilu sortu berria finantzatzera.

## Kontzertu eskaintza

Ohikoan bezala, musika eskaintza oparoa ere egongo da. Ostiralean Aramu eta Zinkha taldeek eta Bidean erromeriak joko dute. Larunbatean Aria eta Gautaegun erromeria arituko dira oholtza gainean, eta DJ Masa arduratuko da gaua ixteaz. Igande goizean Bi Hotsak abesbatzako kideak arituko dira kantuan, eta Biren eta Igor Arzuagaren gaubelare-



Herri bazkariak ez dira faltako ezta aurtengo jaietan. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

kin agurtuko dituzte aurtengo jaiak, dantza plazaren ostean.

## Jende gaztearen inplikazioa

Jai batzordeko kideak pozik daude Aretako gazteek feste-

tan izango duten inplikazioarekin. “Ping-pong txapelketa antolatuko dute bigarren urtez, eta hankapalu taldea ere sortu dute. Areta Egunean atera ziren lehenbiziko aldiz, eta jaietan

buruhandiekin batera aterako dira”. Dena dela, eskuak ez daude soberan, eta antolatzaileek bizilagun guztiei luzatu diete jai batzordean parte hartzeko gonbita, “gazte zein helduei”.

## Gora Aretako jaiak!



UZTAILAREN 25ETIK 28RA

Trail Lasterketa  
Gastronomia lehiaketak  
Artisau eta baserri azoka  
Tailerrak · Jolasak  
Kontzertuak · Ping Pong  
Esku pilota partidu profesionalak · Herri kriolak  
Bazkari herrikoia

ARETAKO JAI BATZORDEA

# eltunel

TABERNA-JATETXEA

Otarateko gozoak jaietako egun eta ordu guztietan

Ondo pasa jaietan!

Gasteiz kalea 5, ARETA-LAUDIO

Tel. 94 672 05 58

xarman  
jatetxea

- Eguneko menuak
- Karta eta menu bereziak
- Ospakizunak

Ondo pasa jaietan!

Tel. 94 672 47 34  
Zuloaga auzoa. ARRANKUDIAGA

Farmacia Ais  
Patricia Bilbao kalea 8, ARETA

K O K A L E K U B E R R I A



SPD  
Belarritakoak  
Tentsioa  
Homeopatia  
Osagarri naturalak  
Ileko eta aurpegiko errutinak

☎688 674 754 @farmaciaais www.farmaciaais.com

AUTOBUSES  
ONIEVA

Gora  
Aretako  
jaiak!

Informazioa eta erreserbak: 94 672 64 45  
Larrialdiak: 619 76 66 51

71 eserleku arteko autobusak

www.onieva.com  
onieva@onieva.com

# Ugarteko Jaiak

## EGITARAUA

### 07.31

#### Asteazkena

09:00 // Herriko plazatik hasita kalejira Lankaietako Lagunak taldearen eskutik  
 12:00 // Meza elizan  
 17:00 // Benjamin mailakoen futbito txapelketaren finala  
 18:00 // Alebin mailakoen futbito txapelketaren finala  
 19:00 // Infantil mailakoen futbito txapelketaren finala  
 19:30 // Kun Kun batukada azotik  
 20:00 // Jai hasierako txupinazo iragarlea  
 20:30 // Kadete mailakoen futbito txapelketa finala  
 21:30 // Umorezko bakarriketak  
 22:30 // DJ Bafol

### 08.01

#### Osteguna

18:00 // Jubenil mailakoen futbito txapelketaren finala  
 19:00 // Senior mailakoen futbito txapelketaren 3. eta 4. postuak  
 19:30 // Arboledako Trikitixa taldearen kontzertua txosnagunean  
 20:00 // Senior mailakoen futbito txapelketaren finala. Jarraian, sari banaketa  
 20:30 // Sardinada Auzolan taldearen eskutik  
 22:30 // DJ Bafol

### 08.02

#### Ostirala

11:00-13:30 // Umeentzako ekintzak Basoa espazioan Kirikiño taldearen eskutik  
 17:30-19:30 // Umeentzako guneak eta puzgarriak futbito zelaian Kirikinoren eskutik  
 19:30 // Talo tailerra

Auzolan taldearen eskutik  
 20:00 // Igel txapelketa  
 21:00 // Zumba Izaskun del Cerroren eskutik  
 23:00 // Kontzertuak: Lur, Gautaegun erromeria, HBN

### 08.03

#### Larunbata

10:00 // Baserritar eta artisau azoka  
 11:00 // Pilota partiduak Lamuzako frontoian Herriaren taldearen eskutik. Laudioko neska-mutilen 3 binakako partidu eta nagusien lehenengo mailako banakako 4 1/2 partiduak  
 13:00 // Poteoa Arloteen eskutik  
 15:00 // San Inazio bazkari herritarra (Tiketak Ugarteko tabernetan salgai). Jarraian, briska txapelketa eta futbolin txapelketa  
 18:00 // Buruhandiak Galtzagorriren eskutik  
 20:00 // Herri kirolak futbito zelaian (Izen ematea 19:30ak arte)  
 23:00 // Kontzertuak: Iraun, Akerbeltz eta DJ Masa

### 08.04

#### Igandea

13:00 // Tortilla txapelketaren aurkezpena txosnagunean eta sari banaketa  
 13:30 // Poteoa Aretako Txistularien eskutik  
 18:00 // Bizkotxo txapelketaren aurkezpena eta jarraian sari banaketa  
 19:00 // Dantza plaza Itxarkundia dantza taldearen eskutik  
 20:00 // Odoloste jana Auzolan taldeak antolatua txosnagunean  
 21:00 // Dantzaldia Baisala taldearekin  
 23:30 // Jai bukaera traka

## Lau egun bizi eta anitz izango dituzte Ugarteko jaiak

la ez da atsedetik hartzeko tarterik egongo uztailearen 31etik abuztuaren 4ra Ugarten, bertako jai batzordeko kideek ekintza andana prestatu baitute auzoko festak ospatzeko.



Herri bazkaria izan ohi da Ugarteko jaietako ekintza jendetsuenetako bat. *Txema Sallen*

#### Testua Txabi Alvarado Bañares

Abuztuari ongi etorri beroa egiteko aukera hobezina eskainiko dute Ugarteko Jaiak. Lau egunez luzatuko dira Laudioko auzoko horretako festak, uztailearen 31etik abuztuaren 4ra, eta ez da ia atsedetik hartzeko aukerarik egongo, ekintza andana egongo baita.

Aniztasuna izango da egitarauaren ezaugarri nagusia. Gustu guztietarako jarduerak

bildu dituzte programan. Kirolak, adibidez, presentzia nabarmena izango du, Ugarteko Torneo mitikoko finalak jokatuko baitira asteazken eta ostegunean. Larunbatean, aldiz, pilota partiduak eta herri kirolak egongo dira.

Larunbateko bazkari herrikoiak ere jende andana bilduko duela aurreikusita daiteke, aurreko urteetan izan duen harrerari erreparatuta. Hala ere, gauean pilotuko da jen-

de gehien seguraski, ehunka lagun igotzen direlako urtero parranda egitera, Laudio-tik eta eskualdeko gainontzeo herrietatik.

DJ Bafol arduratuko da asteazken eta osteguneko gauak giroteaz. Ostiralean Lur, Gautaegun erromeria eta HBNk joko dute, eta larunbatean Iraun, Akerbeltz erromeria eta DJ Masa izango dira jai goizeko ordu txikiak arte luzatzeaz arduratuko direnak.

**KIOSKO UGARTE**  
 GORA UGARTEKO JAIK!  
 946 27 89 65  
 @kioskougarte.laudio

**UGARTEKO ESTANKOA**  
 300 ARTISAU-GARAGARDO BAINO GEHIAGO  
 BONOLOTO EUROMILIOIA KINIELAK  
 Ugarte 6, LAUDIO - 946 720 869

**ULTRAMARINOS SALLEEN**  
*Ondo pasa jaietan!*  
 Ugarte kalea 10 (Laudio)  
 94 672 05 63